

Merkatu Segmentua

Gure xede-publikoa, premia edo behar bereziak edo zehatzak dituzten haurrak dira.

Gure erakundea 1-12 urte bitarteko hurrei bideratuta dago, beraz, gure erakundeko bezeroak haurrak eta familiak izango dira.

Erakunde honetan, hurrek dituzten behar zehatzetan zentratuko gara, batez ere, behar fisikoetan zentratuko gara, adibidez, mugimenduarekin edo entzumenarekin zailtasunak dituzten hurrei laguntza eskaintzen.

Eskeiniko dugun arreta, modu presentzialean edo online bidez jasotzeko aukera izango dute hurrek, gainera, arreta pertsonalizatua izango da, hau da, haur bakoitzaren behar zehatzetara moldatuko da. Saio gehienak bakarkoak izango dira eta hainbat modutara eskeiniko ditugu, beti ere bakoitzaren beharrezanetan zentratuta, haur bakoitza desberdina delako eta bakoitzak bere garapenerako denbora eta espazio desberdinak behar dituelako. Saioak burutzeko, material, objektu eta teknika desberdinetaz baliatuko gara, adibidez, kartulinak, gomazko pilotak eta abar.

Bizkaiko datu batzuk aztertu ondoren, eta El Correoko artikulu honetan azaltzen den bezala, (<https://www.elcorreo.com/bizkaia/nervion/retrocede-baby-boom-20180119192928-nt.html>) Etxebarriko biztaleriaren kopurua 11535koa dela eta 0-19 urte tartekoen kopurua ehuneko 24,7koa dela ikusi ondoren, gure erakundea bertan jartzea erabaki dugu, Etxebarri adin horretako haur kopuru handiena duela ikusi dugulako. Eta gure erakundearen beharra edo eskaintza handiagoa izan daitekeelako toki horretan.